

TRALIMA-ITZULIK ikerketa-taldea

Itzulpena, literatura, ikus-entzunezkoak

Ikerketa-talde kontsolidatua, Eusko Jaurlaritzak (2010-2012; 2013-2015; 2020-2022, IT1209/19), eta Euskal Herriko Unibertsitateak (2013-2020, GIU19/067, PIF18/199) aitortua eta finantzatua.

Sarrera


TRALIMA/ITZULIK taldearen egitekoa kulturen arteko itzulpena eta hartuemana ikertzea da, nola literaturan hala ikus-entzunezkoetan (hots, inprimatuta plazaratzen den kultura tradizionala eta ikus-entzunezkoen bidez iristen dena), ikuspegi historikoa eta deskribatzailea erabilita, eta teknologia berrietako tresnak erabilita (Humanitate Digitalak). Hala, orain arte landu ditugun ikerketa-lerroen ardatza izan da idatziz nahiz ikus-entzunezkoetako itzulpenek agertzen dituzten mekanismo linguistikoak, kulturalak eta sozialak aztertzea. Ikerketa horiek ikuspegi historikoa erabilita egin ditugu, metodologia deskribatzaile komun batez baliatuta, eta teknologia berriak garatu eta aplikatu ditugu. Hain zuzen ere, lan egiteko modu hori bihurtu da taldearen ezaugarri nagusi.

Ikerketa-lerro nagusiak

- ⇒ Corpusean oinarritutako itzulpen ikasketa deskribatzaileak
- ⇒ Euskaratik eta euskararako itzulpena
- ⇒ Literatura itzulpena
- ⇒ Itzulpenaren didaktika
- ⇒ Ikus-entzunezko itzulpena eta irisgarritasuna

Bikaintasun sareak

TRALIMA-ITZULIK ikerketa-taldea corpus elebidun eta eleaniztunak ardatz dituen bikaintasun sarean parte hartu zuen: "CorpusNet - Baliabide eleaniztunak eta haien aplikazioak" (FFI2016-81934-RED, MINECO proiektuak finantzatua)



<http://corpusnet.unileon.es/inicio>

Kongresuak

Ekainaren 23tik 25era bitartean, corpus paraleloei buruzko PaCor 2021 nazioarteko kongresua antolatu zuten TRALIMA-ITZULIK ikerketa-taldeko kideek.




<https://www.ehu.es/en/web/pacor2020/>




TAligner 3.0

Informatika eta itzulpengintza alorretako ikertzaileen elkarlana funtsezkoa izan da TAligner sortzeko. Corpus eleaniztun eta paraleloak sortzeko eta ustiatzeko tresna da. Honakoak ditu ezaugarri nagusiak:

- Erraz abia daiteke, eta erabiltzaileek ez dute laguntza teknikorik behar. Hainbat motatako testuak (narratiba eta antzerkia oraingoz) biltzen dituzten corpusak sor litezke.
- TAlignerren bitartez hainbat testu lerroka litezke aldi berean, ikertzaileak bere lanerako behar dituen adina:



-Sortuko den corpusa tresnan bertan ustia liteke:



Hala, hainbat motatako corpusak osatu dituzte dagoeneko taldekideek. Corpus horiek ezinbestekoak izan dira itzulitako testuen deskribapena egin eta horiek aztertzeko. Jarraian aipatuko ditugu corpus horietako batzuk:

- Alemanetik euskararako literatura testuak, helduei zein haurrei zuzenduak, biltzen dituen corpusa
- Euskaratik gaztelaniara edo frantsesera itzuliriko literatur testuen corpusa
- Ingelesetik gaztelaniarako antzezlanen corpusa

MUST

Nazioarteko proiektuetan ere badabil elkarlanean TRALIMA/ITZULIK, hain zuzen ere, MUST (Multilingual Student Translation) proiektuan. Ikasleen itzulpenez osaturiko corpus eleaniztun bat sortu eta anotatzea dugu helburu nagusi eta corpus horrek aplikazio praktikoa izatea itzulpen-eskoletan.

Statistics for Universidad del Pais Vasco within MUST project								
Number of corpora in your institution:	5							
Number of translations:	282							
Number of translations (NEW):	86							
Number of translations (PROGRESS):	5							
Number of translations (FINISHED):	191							
Total ST tokens:	106674							
Total TT tokens:	110034							
Active student accounts:	0							
Total error annotations:	3439							
Language pair statistics for Universidad del Pais Vasco within MUST project								
Pair	Total texts	NEW texts	PROGRESS texts	FINISHED texts	ST tokens	TT tokens	Active students	Annotations
en>es	65	48	5	12	22691	26307	0	393
eu>es	53	0	0	53	20275	29875	0	531
de>es	0	0	0	0	0	0	0	0
en>eu	96	38	0	58	38406	31668	0	1046
de>eu	68	0	0	68	25302	22184	0	1469